# ZUIN

INFORMAZIO AGENDA
LAUDIOKO UDALA
2021

# 03/2

INFO-AGENDA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO
2021



# Laudio berdintasunaren alde

## Laudio por la igualdad










# BERDINTASUNA/ IGUALDAD



## Martxoaren 8rako, 2021eko Emakumeen Nazioarteko Egunerako, adierazpen instituzionala.

## Declaración institucional para el 8 de marzo, Día Internacional de las mujeres 2021.

### Zaintza berdintasunean. Emakumeen egitekoa Pandemian eta zaintzaren Krisi Globalean.

Dimentsio askoko krisi sistemikoan gaude, zeina gurutzatu eta erlazionatu egiten baita aurretik zeuden beste krisi batzuekin; esaterako, ekologikoa eta zaintza-arlokoa. Pandemiak agerian utzi ditu mugimendu feminista eta emakumeen kolektiboak egiten ari ziren zenbait aldarrikapen: giza bizitza zaurgarria da, eta giza ingurunearen, ingurumenaren eta ingurune komunitarioaren zeharo mendekoa. Ezerk ez du garrantzi handiagoa izan behar bizitza zaintzeak baino, pandemia dela-eta muturreraino prekario bihurtu eta ahuldu den bizitza.

Gaur, martxoak 8, Emakumeen nazioarteko egunean, pandemiak eta haren kudeaketak baldintzatutako urte honetan, aintzat hartu beharra dago emakumeek pandemia eta beraren ondorioak borrokatzeko mundu osoan egindako ekarpena. Zaintzaren ardura emakumeei egokitu zaie, bai zerbitzu publikoetan (osasungintza, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak, merkataritza eta elikadura...) bai etxeen barruan, eta batez ere haiek eraman dute krisi sanitario eta sozial honetan funtsezkoak izan diren zerbitzu askoren zama. Emakumeen artean ere banaketa desorekatua da, klase sozialaren, arrazializazioaren eta migrazio-estatusaren arabera. Gainera, kasurik gehienetan egoera prekarioan egindako lanak dira.

Berdintasunik gabeko banaketa horrek, gainkargaz gain, eta hark emakumeen osasunari eta bizi-kalitateari dakarzkien ondorioez gain, zaintza-sistemaren prekaritatea ere azaleratu du, eta lehendik ere bazeuden desberdintasunak areagotu ditu. Gure gizarte-ereduak familiaren, eta, neurriz kanpoko proportzioan, emakumeen esku uzten ditu zaintza gehienak, bai ordainpekoak bai ordaingabeak; oso gutxi ematen dira eremu publikoan. Bestalde, egoera eta estatus okerreneko emakumeek (guraso bakarreko familien buruak, behartsuenak, kolektibo zaurgarrietakoak, indarkeria matxistaren biktimak...) neurri handiagoan jasaten dituzte zaintza-zamaren ondorio negatiboak.

Ondorioz, gizarteak bere aitorpena adierazteko moduak konpromiso irmoa izan behar du, berdintasunik gabeko banaketa bidegabe horri euskarria ematen dioten genero-arrakalak borrokatzeko konpromisoa. Desberdintasun horiek agerikoak dira emakumeek funtsezko zerbitzuetan egiten duten lanaren baldintzen prekaritateari begiratuz gero. Bada garaia zaintza-lan guztiei dagokien balioa emateko, eta aurrera egiteko erantzunkidetasun handiagoko eredu baterantz, pertsona guztientzat ekitate eta ongizate handiagoa sortzeko.

Udalak gaude lehen lerroan, pandemiari eta hark pertsonengan dituen ondorioei aurre egiten, eta liderrak izan behar dugu zaintzari eta haren hornikuntzari buruzko politika publikoak bultzatzeko orduan, erantzunkidetasun publikotik abiatuta, eta arreta emanez gizon eta emakumeen baldintza eta inpaktu desberdinei.

Erakundeok koordinatuta egoten jarraitu behar dugu, eta bideak zabaldu behar ditugu herritarrek, eta bereziki mota askotako emakumeen kolektiboek eta mugimendu feministak, benetan eta modu eraginkorrean parte har dezaten erabaki publikoetan.





### El Ayuntamiento de Laudio, en el marco de sus competencias, se compromete a:

- Impulsar, en breve plazo y junto con el movimiento feminista y el movimiento asociativo de mujeres, un debate participativo sobreel modelo de organización social de los cuidados desde un enfoque feminista basado en la centralidad de la vida y la corresponsabilidad social y comunitaria en el cuidado.

- Analizar con enfoque de género la situación y necesidades de los colectivos más vulnerables y los efectos de la COVID-19, y poner en marcha medidas urgentes para hacerles frente. Impacto más significativo en aquellas personas que presentaban ya antes una situación de mayor vulnerabilidad: personas con trabajos precarios o sin empleo, personas sin hogar, personas con discapacidad, personas con enfermedad mental, personas mayores, personas migradas y racializadas, hogares monoparentales, trabajadoras familiares, mujeres, niñas y niños víctimas de violencia machista...garantizando siempre un enfoque de género en su análisis.

- Garantizar la incorporación del enfoque de género en todas las medidas que se aprueben para paliar los efectos de la crisis del COVID en materia de ayudas y programas de apoyo.

- Estudiar y articular soluciones viables para los servicios locales de apoyo al cuidado de menores y personas dependientes, procurando y/o facilitando el cuidado en condiciones dignas y justas, para quien lo da, y para quien lo recibe.

- Incidir, tal y como se recoge en el III Plan de Igualdad municipal de manera expresa, en el empoderamiento de las mujeres, la puesta en valor de los cuidados y la corresponsabilidad de los hombres en los mismos.

- Reforzar y preservar el personal y recursos técnicos y económicos para el desarrollo de las políticas locales de igualdad y de la transversalización de género en todas las políticas locales.

- Apoyar a las redes comunitarias de cuidados a nivel local.

# Udalak muralismoaren eta hiriko artearen proiektu bat abiarazi du, udalerriko hainbat lekuren itxura modernizatzeko

Udalak udalerriko hainbat guneren itxura aldatzea proposatu du, hiriko arteari eta "Laudio janzten" ekimenari esker "soineko berria" deitu ahal izateko, udalerriko eta inguruko gazteek diseinatu eta egindako mural itxurako artelan berrien bidez islatuko dena.

## `Laudio janzten´

Udalerriaren irudia aldatzea posible izango da 'Laudio janzten' ekimenari esker. Proiektua lau fasetan banatuta egongo da, eta, horma-irudiak egin aurretik, prestakuntza emango zaie eskuhartzeak egingo dituzten pertsonei. Ibilbide horretan, hiriko artearen jatorriak eta aurrekariak errepasatuko dira, baita grafiti europarra eta amerikarra ere.

Proiektuaren bigarren fasean, zirriborroak eta paperean egindako garapen grafikoak landuko dira, eta hautatutako hormetan eta espazioetan egiteko proposamenak planteatuko dira. Era berean, praktikak egingo dira hiriko artearen berezko materialekin, hainbat teknikarekin esperimentatuz: aerosolak, drippingak, markerrak, etab. Diseinu guztiak baliabide digitalen bidez muralizatu beharreko espazio errealei buruzko argazkien bidez egokituko dira.

Ondoren, Gauzatze-prozesua egingo da, hau da, zirriborroak horman ahokatzea, aurreko kolore-hondoak eta -oinarriak prestatzea: koloreztatzea, inguruak eta azken efektuak, artista profesionalak gainbegiratuta. Bigarren jardunaldian proposatutako horma-proposamenak herriko hormen gainean egingo dira.

Eskuragarri dauden pareten kopurua eta tamaina kontuan hartuta, horma-irudiak banaka edo modu parte-hartzailean egingo dira hainbat artistaren artean. Artistentzako kokalekuez gain, herri osoan edozein pertsonak eman dezakeen sorkuntza artistikoko giroa arnastea nahi dugu.

Hirigintza zinegotziak honako hau iragartzen jarraitu du: Udalak hainbat panel eta baliabide jarriko ditu herriko jendeak bere marrazki txikiak egin, mezuak idatzi eta abar egin ahal izan ditzan eta 'Laudioarren murala' sortu ahal izan dadin.

## Gazteen ikuspegiaren mapa

Azken faseak 2 egun izango ditu, larunbata izango da muralak amaitzeko azken eguna, eta igandean Laudioko gazteen ikuspegiaren mapa aurkeztuko da, bertan egongo baitira artistek sortutako mural guztiak.

Bestalde, horma-irudi horietako bakoitzak metalezko plaka batean QR kode bat izango du, artista guztiek beren artea eta horma-irudiaren zentzua azaldu ahal izateko". Horrela, "Ikuspegi gaztetik Laudioko sentimenduak eta ikuspegia zeintzuk diren irakurri ahal izango dugu. Gainera, artistek plataforma bat izango dute euren burua ezagutarazteko.

Dinamika honekin, Laudioko Janzten jaialdiaren lehen edizioa amaitutzat emango da, laudioar guztiek gozatu ahal izango duten aire zabaleko museo bat sortuz. Laudio berria diseinatzeko aukera emango digun.

Proiektua doakoa da parte hartu nahi duten guztientzat, eta izena eman beharko da mezu bat bidaliz, martxoaren 31 baino lehen **gazteria@laudio.eus** helbide elektronikora

# El Ayuntamiento lanza un proyecto de muralismo y arte urbano para modernizar el aspecto de diversos puntos del municipio

El Consistorio se ha propuesto cambiar de aspecto diversos puntos del municipio con lo que se podría denominar un "nuevo vestido" gracias al arte urbano y la iniciativa "Vestimos Laudio" que se plasmará mediante nuevas obras de arte en forma de mural, diseñadas y ejecutadas por jóvenes del municipio y el entorno.

## "Vestimos Laudio"

El cambio de imagen del municipio será posible gracias a la iniciativa `Vestimos Laudio´. El proyecto estará dividido en cuatro fases, y antes de proceder a la realización de los murales, se va a dar una formación las personas que van a desarrollar las intervenciones, a través de un recorrido donde se repasarán los orígenes y antecedentes del arte urbano y sus tipologías como el grafiti europeo y americano.

En la segunda fase del proyecto, se va a trabajar en la elaboración de bocetos y desarrollos gráficos sobre papel, planteando las diferentes propuestas para realizar en las paredes y espacios seleccionados. Asimismo, se realizarán prácticas con los materiales propios del arte urbano experimentando con técnicas diversas como los aerosoles, drippings, markers, etc.. Todos los diseños se adaptarán mediante fotografías sobre de los espacios reales a muralizar mediante recursos digitales.

A continuación, se llevará a cabo el proceso de ejecución que comprende el encaje de los bocetos en la pared, la preparación de fondos y bases de color previas: Coloreado, contornos y efectos finales bajo la supervisión por parte del artista profesional. En esta jornada se realizarán las propuestas murales planteadas en la segunda jornada, ejecutándose directamente sobre paredes de la localidad.

En base a la cantidad de paredes disponibles y a su tamaño, los murales se harán de manera individual o participativa entre varios artistas. Además de las localizaciones para los artistas, queremos que en todo el pueblo se respire un ambiente de creación artística a la que cualquier persona pueda aportar.

Desde el ayuntamiento habilitaremos una serie de paneles y recursos para que la gente del pueblo pueda hacer sus pequeños dibujos, escribir mensajes, etc. y se pueda crear el `Mural de los y las laudioarras´.

## Mapa de la perspectiva joven

La última fase constará de 2 días, el sábado será el último día para acabar los murales, y el domingo se presentará el mapa de la perspectiva joven de Laudio donde estarán situados todos los murales creados por los y las artistas.

Cada uno de estos murales tendrán en una placa metálica un código QR que dirigirá a una página web en la que todos y todas las artistas podrán explicar su arte, el sentido de su mural. De esta manera, podremos tener una lectura de cuáles son los sentimientos y la perspectiva de Laudio desde un punto de vista joven. Además, los y las artistas contarán con una plataforma donde darse a conocer.

Con esta dinámica, se dará por finalizada la primera edición de Vestimos Llodio habiendo creado un museo al aire libre del que todos y todas las laudioarras podrán disfrutar.

El proyecto es gratuito para todas aquellas personas que quieran participar en él, y será necesario inscribirse enviando un mail antes del 31 de marzo al correo electrónico: **gazteria@laudio.eus**

# Laudiok kobratuko ditu 2021ean udal-hilerrian emandako Zerbitzuak

Tasa hau udal-hilerrian emandako zerbitzuengatik 2021. urtean helbideratuta ez duten zergadunek Kutxabank, Laboral Kutxa eta Caja Rural de Navarrako sukurtsaletan ordaindu ahal izango dute, banku-erakunde horiek irekita dauden ordutegian, kobratzeko ardura duen banku-erakundeak bidaltzeagatik beren helbidean jasoko duten ordainagiri bakarra aurkeztearen aurka. Ordainagiria galdu edo jaso ezean, ale bat bikoiztuko da Udaletxeko Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan.

## Egutegia

Dirua biltzeko epea, borondatezko epean, 2021eko apirilaren 9tik 2021eko ekainaren 9ra arte (biak barne) ireki da. Helbideratutako ordainagiriak 2021eko maiatzaren 10ean kobratuko dira. Borondatezko aldian dirua biltzeko epea amaitutakoan, ordaindu gabeko kuotak premiamendu-prozeduran sartuko dira automatikoki, eta legez ezarritako errekarguak, eta, hala badagokio, berandutze-interesak eta sortzen diren kostuak sortuko dira.

Errekurtsoak jartzeak eta zerga-zorren ordainketa geroratzeko edo zatikatzeko eskaerak ez dute berez etengo ordainketa borondatezko epean egiteko epea.

# Laudio llevará a cabo el cobro por los servicios prestados en el cementerio municipal durante el año 2021

Las y los contribuyentes que no tengan domiciliado esta tasa por los servicios prestados en el cementerio municipal, durante el año 2021, podrán efectuar el pago del mismo en las sucursales de Kutxabank, Laboral Kutxa y Caja Rural de Navarra, en horario de apertura de dichas entidades bancarias, contra la presentación del recibo único que recibirá en su domicilio por envío de la entidad bancaria encargada del cobro. En caso de extravío o no recepción del recibo, se emitirá un ejemplar duplicado en el Servicio de Atención al Ciudadano (SAC) del Ayuntamiento.

## Calendario

La apertura del plazo recaudatorio, en periodo voluntario, ha sido fijada desde el día 9 de abril de 2021 hasta el día 9 de junio de 2021, ambos inclusive. El cobro de los recibos domiciliados se efectuará el día 10 de mayo de 2021. Vencido el plazo de recaudación en periodo voluntario, las cuotas no satisfechas incurrirán automáticamente en el procedimiento de apremio, devengando los recargos legalmente establecidos y, en su caso, los intereses de demora y las costas que se produzcan.

La interposición de recursos y la petición de aplazamiento y/o fraccionamiento del pago de las deudas tributarias no interrumpen, por sí solos, el plazo para efectuar el pago en período voluntario.





# Udalak 2021eko trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko udal-zerga kobratuko du

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko udal-zerga, 2021ekoa, helbideratuta ez duten zergadunek Kutxabank, Laboral Kutxa eta Nafarroako Caja Rural bulegoetan ordaindu ahal izango dute, ohiko ordutegian, etxean jasoko duen Kutxatik bidalitako ordain-agiri bakarra aurkeztuz. Erreziborik ez bada jaso ala jasotakoa galdu bada, erreziboaren ale bikoiztua eskatu Herriko Etxeko Herritarren Arreta Zerbitzuan (HAZ), Herriko Plazan.

## Epeak

Dirua biltzeko epea, borondatezko epean, 2021eko apirilaren 9tik 2021eko ekainaren 9ra arte (biak barne) ireki da. Helbideratutako ordainagiriak 2021eko maiatzaren 10ean kobratuko dira. Borondatezko aldian dirua biltzeko epea amaitutakoan, ordaindu gabeko kuotak premiamendu-prozeduran sartuko dira automatikoki, eta legez ezarritako errekarguak, eta, hala badagokio, berandutze-interesak eta sortzen diren kostuak sortuko dira.

Errekurtsoen ezarpenak eta atzerapen edo/eta zatiketaren ordainketaren eskaerek ez dute eteten, haiek bakarrik, borondatezko epea.

# El Ayuntamiento procederá al cobro del impuesto municipal sobre vehículos de tracción mecánica relativo al año 2021

Las y los contribuyentes que no tengan domiciliado el impuesto municipal sobre vehículos de tracción mecánica, relativo al año 2021, podrán efectuar el pago del mismo en las sucursales de Kutxabank, Laboral Kutxa y Caja Rural de Navarra, en horario de apertura de dichas entidades bancarias, contra la presentación del recibo único que recibirá en su domicilio por envío de la entidad bancaria encargada del cobro. En caso de extravío o no recepción del recibo, se emitirá un ejemplar duplicado en el Servicio de Atención al Ciudadano (SAC) del Ayuntamiento.

## Plazos

La apertura del plazo recaudatorio, en periodo voluntario, ha sido fijada desde el día 9 de abril de 2021 hasta el día 9 de junio de 2021, ambos inclusive. El cobro de los recibos domiciliados se efectuará el día 10 de mayo de 2021. Vencido el plazo de recaudación en periodo voluntario, las cuotas no satisfechas incurrirán automáticamente en el procedimiento de apremio, devengando los recargos legalmente establecidos y, en su caso, los intereses de demora y las costas que se produzcan.

La interposición de recursos y la petición de aplazamiento y/o fraccionamiento del pago de las deudas tributarias no interrumpen, por sí solos, el plazo para efectuar el pago en período voluntario.

# LA ASOCIACIÓN CONTRA EL CANCER LLEGA A LLODIO

## MINBIZIAREN AURKAKO ELKARTEA LAUDIORA IRITSI DA

**En la Asociación Contra el Cáncer estamos para ayudarte en todo momento con nuestros servicios gratuitos:**

Minbiziaren Aurkako Elkartean behar duzunean laguntza eskeintzen dizugu gure doako zerbitzuen bitartez:

**APOYO PSICOLÓGICO**
**LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA**

Te escuchamos y te apoyamos durante todos los momentos de la enfermedad. Para aceptar el diagnóstico, reducir la ansiedad, combatir los miedos...
Gaixotasunaren epe guztietan zure ondoan aurkituko gaituzu, zurekin hitz egiteko, babesa emateko: diagnostikoa baieztatzeko, antsietatea murrizteko, beldurrei aurre egiteko…

**ATENCIÓN SOCIAL**
**ARRETA SOZIALA**

Te guiamos para minimizar el impacto del cáncer en tu día a día y te ofrecemos orientación socio-laboral, residencias de acogida, préstamo de material ortopédico, ayudas económicas...
Egunerokoan minbiziak duen talka murrizteko gidatzen zaitugu eta orientazio sozio-laborala, harrera pisuak, material ortopedikoaren mailegua, laguntza ekonomikoak… eskaintzen dizkizugu.

**ORIENTACIÓN SANITARIA**
**OSASUN ORIENTAZIOA**

Te ayudamos en las miles de dudas que te puedan surgir sobre síntomas, pruebas, tratamientos... te damos todas las explicaciones que necesites en todo momento: terapias, cuidados, etc.
Sintomak, probak edo tratamenduei buruz hamaika zalantza izan ditzakezu. Momentu bakoitzean laguntzen dizugu terapiak, zainketak edo beste zalantzei buruz azalpen guztiak emanez.

**Ponte en contacto con nosotros por alguno de nuestros canales (PRESENCIAL, TELEFÓNICO O TELEMÁTICO) y te ayudamos en lo que necesites.**
Jarri gurekin harremanetan gure kanalen baten bidez (PRESENTZIALA, TELEFONIKOA EDO TELEMATIKOA) eta behar duzun guztian lagunduko dizugu.

**AECC ÁLAVA**

**Atenciones presenciales los lunes en el Edificio Viña Vieja con cita previa.**
Arreta presentzialak astelehenetan Viña Vieja eraikinean, hitzordua eskatuta.

**Atenciones telefónicas o videoconferencia bajo cita previa.**
Telefono bidezko arreta edo bideokonferentzia, aurrez hitzordua eskatuta.

*HITZORDUA ESKATU DU / SOLICITA CITA PREVIA*
945 26 32 97
alava@aecc.es
aecc.es

aecc
Contra el Cáncer
Minbiziaren Aurka

# Alavabuseko eta Eskualdeko Garraioko lineek BARIK eta MUGI txartelak onartzen dituzte hilabete honetatik aurrera

Bidaiariak errepidez garraiatzeko Alavabuseko eta Eskualdeko Garraioko foru lineek, martxoaren 1etik, Barik eta mugi txartelak onartzen dituzte ordaintzeko modu gisa, horrek dakartzan abantailekin, erosotasunari eta txartelaren prezioaren gaineko deskontuei dagokienez. Bide Azpiegituretako eta Mugikortasuneko Departamentua aurrera doa lurraldeko garraio publikoko txartelen elkarreragingarritasunean.

# Las líneas de Alavabus y Transporte Comarcal admiten desde este mes las tarjetas BARIK y MUGI

Las líneas forales de transporte de viajeros por carretera de Alavabus y Transporte Comarcal admiten, desde el pasado 1 de marzo, las tarjetas BARIK y MUGI como medio de pago con las ventajas que conlleva en cuanto a comodidad y descuentos sobre el precio del billete. El Departamento de Infraestructuras Viarias y Movilidad avanza de esta forma en la interoperabilidad de las tarjetas de transporte público territoriales.

# Laudiok zebrabide bat estreinatu du Ellakurin

*Hobekuntza horri esker, auzoko bizilagunek duela urte askotatik asko eskatzen duten segurtasun-arazoa konponduko da*

Laudioko Udalak, Zerbitzu Arloaren eta auzoen bidez, beste zebrabide bat margotu du Ellakurin. Horri esker, segurtasuna hobetuko da eremu horretan, eta zirkulazioa arinduko da.

## Auzotarren eskaria

Udal baliabide propioekin egindako hobekuntza honek urteak zeramatzaten herritarren eskaera historiko bati erantzuten dio, Arrañora segurtasun handiagoz sartu ahal izateko.

# Laudio estrena un paso de cebra en Ellakuri

*Gracias a esta mejora, se va a solucionar un problema de seguridad muy demandado por las y los vecinos del barrio desde hace numerosos años*

El Ayuntamiento de Laudio, a través de su Área de Servicios y Barrios, ha procedido al pintado de un nuevo paso de cebra en Ellakuri que permitirá mejorar la seguridad en la zona, a la vez que permitirá aliviar el tráfico.

## Demanda vecinal

Esta mejora realizada con recursos propios municipales responde a una demanda histórica de las y los vecinos que llevaban años solicitándolo para poder acceder con mayor seguridad hacia Arraño.



# Kultura tailerrak Laudiora itzuliko dira apiriletik aurrera, segurtasun neurri guztiekin

Udal ikastaroak eta tailerrak apirilaren 12tik aurrera itzuliko dira Laudiora, eta ekainaren amaieran amaituko dira. Hala ere, martxan jarri ahal izateko, gutxienez sei pertsonak eman behar dute izena, eta taldeko gehieneko parte-hartzaile kopurua inoiz ez da hamabi pertsonatik gorakoa izango.

Izena emateko eskaerak martxoaren 15etik aurrera egin daitezke Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan (HAZ), udaletxeko beheko solairuan, edo egoitza elektronikoaren bidez, udaletxera joan beharrik gabe. Izena emateko azken eguna martxoaren 25a izango da.

Plaza baino eskabide gehiago egonez gero, zozketa publikoa egingo da Kultur Etxean, martxoaren 26an, 18:00etan. Martxoaren 30ean, onartuen zerrendak jarriko dira udaletxean eta Kultur Etxean, eta izen-ematea formalizatzeko, matrikula ordaindu beharko da behean adierazitako banku-kontuetako batean, ikastaroaren kodea (Kod.) edo izena eta parte-hartzailearen izena adierazita. Ordainketa apirilaren 7a baino lehen egin beharko da banku laguntzaileen bidez: Laboral Kutxa eta Caja Vital.

Osasun eta antolaketa arloko eskakizunak direla eta, Udalak aldaketak egiteko aukera izango du, bai tailerren kokapenean, bai ikastaroak martxan jartzeko datetan, eta, beharrezkoa izanez gero, matrikula osoa edo haren zati bat itzuliko du.

## Kobidaren aurkako neurriak

Nahiz eta osasun-egoerak bilakaera positiboa izan duen azken asteetan, indarrean dagoen larrialdi-egoera dela eta, ezohiko neurriak hartuko dira tailer guztietan, guztien segurtasuna bermatzeko. Horretarako, parte-hartzaile bakoitzak ikasgelan izendatutako leku bat izango du, eta bertatik soilik joan ahal izango da aretotik irteteko, une oro pertsonen arteko segurtasun-distantzia 1,5 metrokoa izango da, eta uneoro maskara erabili beharko da, pertsonen arteko distantzia edozein dela ere.

Era berean, ikasgelara sartzeko, pertsona guztiek esku-higienea egingo dute. Disoluzio hidroalkoholikoekin garbituz eta tenperatura kontrolatuz. Bestalde, Jarduerak irauten duen bitartean, lokaleko leihoak irekita egongo dira ahal den denbora guztian, eta beti, gutxienez, bost minutuz ordu bakoitzean, eta Kobidarekin bateragarriak diren sintomak (sukarra, eztula, eztarriko mina, konjuntibitisa, goragalea, beherakoa, etab.) izan dituen edo agertzen dituen edozein pertsonak jarduera aldi baterako utzi beharko du eta bere osasun-zentroari jakinarazi beharko dio.

Era berean, parte-hartzaile bakoitzak egunero eramango du jarduera egiteko behar den material guztia, baina ezin izango da inoiz partekatu, eta ikastaroan izena eman ez duen inor ezin izango da eraikinean sartu ikasleei laguntzeko. Zuraren tailerreko ikastaroaren kasuan, Gardeako Kultura Zentroaren instalazioetan egingo da, sormenezko idazketaren ikastaroa, bestalde, kultur etxeko etxe nagusian egingo da, eta gainerakoa Zubiko eraikinean.



# Los talleres de Cultura regresan a Laudio el mes de abril, con todas las medidas de seguridad

Los cursos y talleres municipales vuelven a Laudio, de manera previsible, a partir del 12 de abril y concluirán a finales de junio. No obstante, para que se puedan poner en marcha deben haber realizado la inscripción un mínimo de seis personas y el número máximo de participantes por grupo nunca excederá el número de doce personas.

Las solicitudes de inscripción se pueden realizar desde el 15 de marzo en el Servicio en el Servicio de Atención Ciudadana (SAC), en la planta baja del Ayuntamiento, o a través de la sede electrónica, sin necesidad de acudir al Ayuntamiento. El último día para presentar las solicitudes de inscripción será el 25 de marzo.

En el caso de haber más solicitudes que plazas se realizará un sorteo público en la Casa de Cultura el día 26 de marzo a las 18.00 horas. El día 30 de marzo, se colocarán las listas de personas admitidas tanto en el ayuntamiento como en la Casa de Cultura y para formalizar la inscripción se deberá abonar la matrícula en una de las cuentas bancarias abajo indicadas, señalando el código (Kod.) o nombre del curso y el nombre del participante. El Abono deberá hacerse antes del día 7 de abril a través de los bancos colaboradores: Caja Laboral y Caja Vital.

Por exigencias sanitarias y organizativas, el Ayuntamiento se reserva la posibilidad de realizar variaciones tanto en la ubicación de los talleres como en las fechas señaladas para la puesta en marcha y duración de los cursos, procediendo, si fuera necesario, a la devolución de la totalidad o de parte de la matrícula.

## Medidas anti-covid

Aunque la situación sanitaria ha ido evolucionando de manera positiva durante las últimas semanas, dada la situación de emergencia vigente, se van a adoptar medidas extraordinarias en todos los talleres para garantizar la seguridad de todos y todas. Para ello, cada participante tendrá en el aula un lugar designado del que únicamente se podrá desplazar para abandonar la sala, mantenimiento en todo momento de la distancia de seguridad interpersonal de 1,5 metros y será obligatorio en todo momento el uso de mascarilla con independencia de la distancia interpersonal.

Asimismo, para acceder al aula todas las personas procederán a la realización de la higiene de manos. Mediante el limpiado con soluciones hidroalcohólicas y se realizará un control de temperatura.

Por otro lado, durante el tiempo de actividad también se mantendrán abiertas las ventanas del local todo el tiempo que sea posible y siempre, por lo menos, durante cinco minutos cada hora y cualquier persona que haya tenido o muestre síntomas compatibles con el Covid (fiebre, tos, dolor de garganta, conjuntivitis, náuseas, diarrea, etc) deberá abandonar temporalmente la actividad e informar a su centro de salud.

Del mismo modo, cada participante llevará a diario el todo el material necesario para la realización de la actividad sin que este pueda ser compartido en ningún momento y ninguna persona no inscrita al curso podrá entrar en el edificio para acompañar al alumnado. En el caso del curso de taller de madera, se realizará en las instalaciones del centro de Cultura de Gardea, el de escritura creativa, por su parte, se realizará en la casa matriz de la casa de Cultura y el resto en el edificio de Zubiko.

# KULTURA/ CULTURA

## Udal tailerrak/ Talleres municipales

### Apirila-ekaina/ Abril-junio

| | EGUNAK ETA ORDUTEGIA<br>Días y horarios | ORDU KOPURUA<br>Nº de horas |
|---|---|---|
| Dekorazio arteak / Artes decorativas | Astearte eta osteguna<br>Martes y jueves 16:50 - 18:50 | 46 |
| Dekorazio arteak / Artes decorativas | Astearte eta osteguna<br>Martes y jueves 19:00 - 21:00 | 46 |
| Ehoziriak, bainaika eta gantxiloa/ Bolillos, vainica y ganchillo | Astelehena eta asteazknea<br>Lunes y miércoles 17:10 - 19:10 | 46 |
| Margoketa / Pintura | Astearte eta osteguna<br>Martes y jueves 19:00 - 21:00 | 46 |
| Margoketa / Pintura | Astelehena eta asteazkena<br>Lunes y miércoles 18:50 - 20:50 | 46 |
| Zur-lanketa / Talla de madera | Astelehena eta asteazkena<br>Lunes y miércoles 19:00 - 21:00 | 46 |
| Margoketa / Pintura (6-9 urte/años) | Astelehena/ Lunes<br>17:00 - 18:30 | 16,5 |
| Margoketa / Pintura (6-9 urte/años) | Asteartea/ Martes<br>17:00 - 18:30 | 16,5 |
| Eskulangintza / Manualidades (6-12 urte/años) | Asteazkena/ Miércoles<br>17:00 - 18:30 | 16,5 |
| Margoketa / Pintura (10-17 urte/años) | Osteguna/ Jueves<br>17:00 - 18:30 | 16,5 |
| Margoketa / Pintura (6-9 urte/años) | Ostirala/ Viernes<br>17:00 - 18:30 | 16,5 |
| Margoketa / Pintura (10-17 urte/años) | Ostirala/ Viernes<br>18:40 - 20:10 | 16,5 |
| Idazkera kreatiboa / Escritura creativa | Asteazkena/ Miércoles<br>18:30 - 20:30 | 20 |

Ikastaroen matrikularen zenbatekoa, zerbitzuak emateagatiko edo udal-jarduerak egiteagatiko prezio publikoak arautzen dituen ordenantzaren arabera, ikastaroaren iraupen-ordu kopuruaren eta parte-hartzaileen adinaren araberakoa izango da. Horrela, zenbatekoak honako hauek dira:

El importe de la matrícula de los cursos, de acuerdo con la ordenanza reguladora de los precios públicos por la prestación de servicios o la realización de actividades municipales, estará en función del número de horas de duración del curso y de la edad de los participantes. De este modo, los importes son los siguientes:

| ADINA/ Edad | Ordu Kopurua/ Nº de horas: 16,5 | 20 | 46 |
|---|---|---|---|
| 21 urte baino nagusiagoak<br>Mayores de 21 años | 26, 34€ | 31,93€ | 31,93€ |
| 15 eta 21 urte bitartean<br>De 15 a 21 años | 19, 73€ | 23,91€ | 23,91€ |
| 15 eta 21 urte bitartean<br>De 15 a 21 años | 13, 13€ | 15,91€ | 15,91€ |



# EUSKARA

Laudio udaleko Hizkuntza Normalizaziorako eta Kultura Ondareko zerbitzu-atalek MARTXOko AZKEN ASTERAKO antolatu dituzten ekintzak. Banan-banan iragarriko dira baina hau aurrerakin gisa doakizue.

Actividades organizadas por las Unidades de Servicio de Normalización Lingüística y Patrimonio Cultural del Ayuntamiento de Llodio para la ÚLTIMA SEMANA de marzo. Se comunicará individualmente cada una de ellas pero esto es un adelanto.

**> MARTXOAK 26**, ostirala
Kultura-etxeko Etxe Nagusian

### FAMILIAN EUSKARAZ JOLASEAN (BERBALAGUN)

Familian egiteko hiru lantegi:

- 17:00 Gorputz perkusioa
- 18:00 Munduko dantzak
- 19:00 Itzal txinatarrak

* Izena eman behar da aldez aurretik: 60 7673 744. (Doakoa)

**> MARTXOAK 27**, larunabata
Kultura-etxeko Etxe Nagusian

### SORGINEKIN JOLASEAN

Etxean ZOOTROPO bat egiteko bideo tutoriala igoko da eta baliagarri egongo da astebetez.

http://www.laudio.eus/eu/herritarrak/sorginekin-jolasean

**> MARTXOAK 28**, igandea
Aldai plazan, 12:00-12:30

### KORRIKA

AEK-k ekitaldi bat antolatuko du Korrikaren gorazarre gisa, aurten ezingo delako gauzatu gure errepideetan.

## Laudioko emakumeen bideo oroimenenen aurkezpena

Iaz gauzatutako proiektuaren protagonista izan ziren 8 emakume nagusiei omenaldi eskaintzeko ekitaldia, gure udalerriko adineko 8 emakume horien kontakizunen bidez izan duten benetako papera aitortu, berreskuratu eta bistaratzeko.

Bideoa ikusteko:
https://vimeo.com/521387916

## Presentación de las video memorias de mujeres de Llodio

Proyecto llevado a cabo durante el año pasado, para reconocer, recuperar y visualizar el papel real que han desempeñado las mujeres mayores de nuestro municipio a través de los relatos de estas 8 mujeres.

Ver vídeo aquí:
https://vimeo.com/521387916



## Ei gazte! Adi!

Kirikino aisialdi taldetik hitza eman nahi diegu gazteei, zertarako?

Laudioko gazteentzako aisialdi eskaintza osatu nahi dugu, gazteengandik eta gazteentzarako. Nori galdetuko diogu bestela?

Hartu bi minutu, eta bete ezazu galdetegia: labur.eus/gaztehitzahartu

...eta zuk? Zelako eskaintza nahi duzuzu? Norekin parte hartu nahi duzu? Non?

Zalantzak eta ekarpenak egiteko, idatzi **688726665 zenbakira!**




## LAUDIO TOP ZINEMA

FILMAK **PELÍCULAS**



**MARTXOAK 20** de marzo, 18:30
### JOSEP
+12. 3€



**MARTXOAK 21** de marzo, 17:30
### ELFINKINAK
3€



**MARTXOAK 27** de marzo, 18:30
### ENTRE NOSOTRAS
+7. 3€